


iritzia

gaurko...

...elkarritzeta



Josetxo Fagoaga

• HIKA ALDIZKARIKOA •

«Ezkerreko pentsamendua hedatu nahi dugu»

Hika aldizkariak ehungarren alea kaleratu berri du.

■ 1991ko martxoan atera zen Hika aldizkariaren lehen alea.

Bai, horrela da. Zortzi urte daramagu kalean, eta ehun ale plazaratu ditugu.

■ EMK eta LKI alderdiek zituzten aldizkarietatik dator Hika.

Horrela da. Zer egin EMKkoa zen eta Zutik, berriz, LKIk. Zutik hirurogeiko hamarkadan sortu zen, eta bere goi-buruak ETako hainbat taldek erabili zuten: ETA Berrik, ETA-V.ak, ETA-VI.ak eta, hirurogeitamarraz geroztik, ETA VI.ak eta LKIk erabili zuten. Zer egin 1969an sortu zen, eta 1990ean atera zuen azken alea.

■ Aldizkariaren sorrerako helburuak atxikitzen al dira egun?

1991. urtean antzeman zitekeen sozialismo erreala porrot egin zuela, eta ezkerrek beste erronkak zituela. Testuinguru horretan sortu zen Hika. Ezkerreko pentsamenduren arakatzea eta hedatzea genuen helburu orduan, eta gaur egun ere helburu berak ditugu.

■ Le Monde Diplomatique aldizkari frantziarra ez al duzue ispilu?

Neurri batean bai. Etorki ezberdina dugu, baina harreman ona dugu. Ikuspegi berdintsuetan mugitzen gara: pentsamendu bakunaren kontrako jarra, pentsamendu kritikoa hedatu nahian eta abar.

Jose Luis Aizpuru

DONOSTIA

...esaera

«Kito, ahuntza larrean ito»

...hizpideak

Sarrionandia, poeta handia

■ Joseba Sarrionandia poeta handia da, haren azken idazlanek hori erakusten dute. Aitzpea Azkorbebeitia durangar filologoak Sarrionandiarren poetika aztertu du *Sarrionandia: irakurketa proposamen bat* liburuan, eta lurretako idazlearen testu estrategiari ere erreparatu dio. Izan ere, Sarrionandiarren idazlanek irakurlearen parte hartzea bilatzen dute, eta hainbat irakurketa onartzen dute.

Hala, irakurlearen pentsamendu kritikoa bultzatzen du Sarrik, irakurlea idazlanaren

aurrean geratu eta hausnarketa egin dezan. Estrategia horren ondorioak dira idazleak erabiltzen dituen ironiak, paradoxak eta beste hainbat literatur lanabes. Finean, Sarrionandiarren azken lanak, nahiz eta genero ezberdinetakoak izan, egilearen espiritu kritikoa eta heterodoxoaren ispilu dira.

Laster izango da kalean bere lehenengo eleberrria, nahiz eta Sarrionandiak beti esan duen literatur genero hori ez zaiola hainbeste interesatzen.

Estatistiken alde ezkutua

■ Mila langileko 14 lan gaixotasun antzeman ditu EAEn Osalan lan osasun eta segurtasunaren gaietarako institutuak. Duela bi urteko emaitzak dira, eta geroztik emaitzek oso igoera nabarmena eduki dute. Dena dela, zenbakiak ez dute errealtate osoa azaltzen. Nerbio gaixotasunak edo zenbait gorreria kasu ez dira lan gaitzen zerrenda ofizialean sartzen. Lan gaixotasun zenbakiak, beraz, ez dira ezerean adierazle, hutsunez betetako estatistika eta erregistroen isla ez badira.

Euskaltel Tourrera

■ Euskaltel-Euskadi taldeak Frantziako Tourra korritzeko aukera izango du lehen aldiz. Gorosperen taldea izugarritzko denboraldia ari da osatzen eta Tourreko antolatzaileek gonbitea egingo dietela iragarri dute. Gorospek denboraldia prestatu zuenean ez zuen Tourra gogoan, eta batek daki nola erantzungo duten, baina saria bikaina da. Babeslearekin akordioa luzatzeko ezin hobea.

Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik

■ Gipuzkoako 26 eskola txikietako guraso, irakasle eta haurrek Eskola Txikien Eguna ospatu zuten atzo Alkizan (Gipuzkoa), elkarrekin festa egun bat ospatzeaz gain herri txikietako ikastetxeen garrantziaz ohartarazteko.

Ikastetxe handiagoez ez dituzten hainbat eta hainbat arazori aurre egin behar izan diete betidanik herri txikiako eskolek, baina duela bi urte indarrean jarri-

tako Hezkuntzaren Erreforma arazo bat gehiago ekarri zien: lehen haurrak 14 urterekin joaten ziren herri handietako eskolara; orain, berriz, 12rekin.

Arazoak arazo, aurre egin dute eskola hauek guztiek. Festa egunaren leloak ondo argi adierazten du antolatzaileek zabaldu nahi izan duten mezu argigarria: «Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik».

...pertsonaiak



BIHARI VAJPAYEE • Indiako lehen ministroak gerrarako prest egoteko eskatu dio bere herrialdeko Armadari. Kaxmirko mugan Pakistanekin sortu gatazka gori-gorian dagoela adierazi du Indiako buruzagiak.



RICARDO UGARTE • Artista gipuzkoarrak *Olerkieren branka* izeneko erakusketa zabaldu du Iruñean, Unibertsitate Publikoaren Carlos III.a aretoan.

Izen bereko eskultura jarriko du unibertsitatean irailean.



ALEKSANDR VINOKUROV • Dauphine Libere txirrindulari proba irabazi du. Joseba Beloki Euskaltel taldekoak laugarren tokian bukatu du, eta Unai

Osak zazpigarren.

...datua

25 urte bete dira Ikerlan MCC kooperatibaren ikerketa zentroa abian jarri zela. Iaz 1.655 milioi pezetako diru sarrera izan zuen, eta aurreko urteko emaitzak %13 gainditu zituen.

...adierazpena

«Ez dut Europako bizimodua estandar bihurtzeko inolako asmorik»

• **Romano Prodi**

Europako Batzordeko lehendakaria

...hemeroteka

EL PAIS

Proba ustela

EDITORIALA

Belgikan dioxinaz —toxiko minbizi-sortzaile batez— kutsatutako pentsuak erabili dituzte gizakiek kontsumitzen dituzten animaliak elikatzeko, eta horrek elikagaien alorrean eragindako krisi larri-larriak nabaritasun kezagarri bat paratu du Europako kontsumitzaileen aurrean: elikagaien osasun baldintzak bermatzeko beharrezko babes sareak astiro funtzionatzen dute, eta zalan-

tzazko eraginkortasuna dute.

Zalantza gutxi dago Belgikako Gobernua dela Europako osasun publiko-arentzako arrisku horren erantzule nagusia.

Europako Elkartek Belgikari aplikatu behar dizkion zigorrak gain, zeinen egokitasuna ezin dudatuzkoa baita, Batzordeak eta Europako arduradun politikoek ataka arriskutsu honetatik ondorio baliagarriak ateratzea da garrantzitsua. Nekazaritza ministroek bihurtik aurre egingo duten bilerak baliagarria izan beharko luke alerta-sistemak presartzeko, eta horrela, sorburuan egindako kontrolen

bidez, horrelako egoerei erantzun lasterra eman ahal izateko.

gara

Euskal Herriko nekazaritza

MANU MARAÑON
[EHNEKO KOORDINATZAILEA]

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lehen gobernuak sortu zirenean, Euskal Herriko nekazaritzan ia 37.000 nekazari ziharduten, eta Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren kotizatzen zuten. 1999. urtearen hasieran, 16.400 nekazari kotizatzen dute

gizarte segurantzaren, eta 40.000tik gora dira nekazaritzako pentsiodunak. Euskal Autonomia Erkidegoan soilik 24.600 pentsiodun daude, eta gainontzekoak Nafarroan egindako kalkulu gutxi goraberako bati dagozkio, baina baliteke gehiago izatea. Nekazariet erretiroa hartu edo beren jarduera bertan behera uzten dute, eta ondoko belaunaldiak ez dute aurrekoen lekua hartzen. Beheranzko erritmo horrekin jarraituz, hau da, nekazaritzako biztanleria aktiboa urtean %6tik %4ra jaistera, nork bere ondorioak atera ditzala 2010. urteko egoera kezkariaz. (...)